




## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Guk bezeroekin komunikatzeko hainbat baliabide erabiliko ditugu, alde batetik gure telefono zenbakia eskeiniko diegu: tlf:915 436 780. Beste aldetik, Instagram kontua honako hau izango da: @porlospelos\_bizkaia.Azkenik, email era dugu: [porlospelos@gmail.com](mailto:porlospelos@gmail.com)



Gainera, txarteltxoak emango dizkiegu bezeroei eta bertan gure enpresaren izena eta zenbaki telefonoa agertuko da. Are gehiago, lehen aipatu dugun bezala, iragarki bat izango dugu ikusgai Spotify plataforman eta kartel tentagarri batzuk kokatuko ditugu leku estrategiko desberdinetetan jende erakartzeko. Plataforma hau aukeratu dugu, batez ere, gazteek asko erabiltzen dutelako. Pertsona helduen kasuan, sare sozialak oso gutxi erabiltzen dituztenez, irratian Spotify plataforman agertuko den iragarki berdina ipintzea erabaki dugu. Modu honetan bezero guztiek gure enpresaren berri guztietaz konturatuko dira.



Gure kasua berezia da bezeroak ez direlako mugitu behar, guk gara mugitzen garenak eta haien bizitokien azpian kokatzen gara.

Hala ere, interneten webgune bat sortuko dugu eta bertan bezeroei guk gure kamioian erabiltzen ditugun produktu guztiak salgaiak ipiniko ditugu, honi esker gure sarrerak handitu egingo dira. Produktuak bezeroen etxetara heltzeko banatzaile bat kontratatuko dugu ondasunak ahalik eta azkarren heltzeko.

Are gehiago, bezero batek ordu jakin batean geratzeko bere etxe azpian eskatzen badigu, guk salbuezen bat egiteko aukera izango dugu, noski betiere 2 ordu lehenago abisatu beharko dute telefono edo email baten bitartez.

